

"BAI" TA "EZ" ADITZ AUREAN

Itz biok enda batekoak dira: bayetza ta ezetza dikuře: gaztelerazko «sí» ta «no» direana, orixe berori dira, besterik ez. Saři baño sařiago erabili oi dira-ta origaitik-edo, aditz aurean bein baño geyagotan izki bana galtzen dabe: *ba* naz, enintzan.

Edo bakařik edo aditz auretik doaz beti, erderazko «sí» ta «no» bezelaxe: augaitik-edo aditz-aufizkiak direala diñoie batzuk; nire aburuz, erderazko «sí» ta «no» aditz-aufizkiak izango diran egunean, gure «bai» ta «ez» be olako zerbait izango-edo dira: baña bien bitartean, ez.

Geyenetan aditz-auretik dabilzalako, euskaleriak aditzakin batu ditu ta idazlerik geyenak be aditzari iratsi dautsez, ori dala-ta eřiak aditzetan sartu dituan aldakuntza guztiak edo geyenak beintzat, ontzat emonaz. Nire eretxi txikarez, aditzai iratsi barik, bereziki ta oso-osorik idatzi beař litzakez beti.

'' B A I ''

Euskaleriak aditz-aurean bai'ren ordezt beti-beti «ba» esaten dauala diñoie: baña «ezta» ta «bai-da» eřiak darabiltzala ta «eztabaidea» ortik sortu dala iñok be ezin ukatu daike. Euskaldunak euren artean eztabaidea darabilenetan ęzegaitik esaten dabe beti «bai-da» ta iñoz bez «ba-da»? Euren bayetzari indař geyago emoteařen, esaten dabela edonok daki: augai-

tik bere bayetza sendoago egiteko aldia dala-ta, ba'ren ordez bai darabilan idazlea, eñagaz dabil.

2.º Baña eztabaidarik ez dagoanean be, aditz-auřetik «bai» oso-osorik bein baño sañago erabilten dau eñiak. «Oingo etoři da, ba? Bai da etoři»: neure eñian eta neure belañiakın olako esakunak sañi entzun dōdaz. Oraındik egun asko ez dala, nire irakasle-lagunak bost edo sei urteko umekondo bateri esan eutsan: zeu Nabarniz'en izan zara, eta mutikotxuak «bai naz» biribil-biribil erantzun eban. Egun aretan-txe, etxeruntz gentozala, emakume biren autua entzun gendun: euretatik zarenak gazteenari esan eutsan: oingotan denpora asko daroye ta onek erantzun eutsan: Bai daroye: arek joan zirala, etc. Neure irakasle-lagunari diñotsot: eñiak ez dauala esaten eta ona emen, arātsalde baten biřitan dantzugu. Eta berak erantzun eustan: ħeñiak ez dauala esaten? ori diñoana gořa-edo da, eñiak aditz-auřetik be «bai» bete-betea sañi esaten dau-ta. «Bai daroye esan dauan emakume ori aulestiařa da: lengo mutikotxua, lekeitiařa». Nire irakasle-laguna zuzen egoan. Ařezkero belañiak zuřago erabili dōdaz eta kalean jolasten ebiltzan umeai aditz-auřetik «bai» ori sañi entzun dautset Lekeitio aldean, andi ta txikiak auřez esaten dabe: edeřa da gero au! Bai da. Gaiztoak dira gero eũrok! Bai dira ta onelan beste askotan be.

3.º Norbaitek esango dau, bear ba-da; bedi, baña aditz-auřetik «ba» sañago entzungo dogu beste «bai» ori baño—Eta ořegaz zer? Eñiak «bai» ri bere i ori sañi jan egiten dautsala-ta, idazleok be i ori barauste-kotzat edan bear ete-dogu? Ori *paitařa* baño be barausteko txaragoa litzake. Eñiak auřez, notiño, notaki, notakař, notarabil; onetiño, onetaki, onetakař, onetarabil; ořetiño, ořetakař, ořetarabil, ořetaki; are-

tiño, aretakeri, aretakar, aretarabil eta abar esaten ditu; baña itz bi oreikin bat egin eta biak alkarri iratsita idatzi dituan idazlea ¿zein da? Bai naz, bai-dator etcétera, eriak ez dituala erabilten eta, barikeri igingaritzat daukaguz: Notaki, onetaki, ofetaki, aretakeriak darabiltz; baña ontzat ez doguz emoten eta eriaeren okeña zuzendu egiten dogu. Batean bai, bestean ez ¿zegaitik ori?

4.º Itz au aintziña ta beñola «bai» esaten zala-ta orain be osorik ogutzi ezkerro, «bai» litzakela orok autoftu bear dabe. Urlia etori ete-da? Bai, bai jauna; bai, andrea Urlia etori ete-da? Ba da etori. Lengo «bai» arek eta oingo «ba» onek ikuñ bat dauke; gauza bat eta bardiña adierazten dabe. Ori ta guzti be, arako lenengo a «bai» eta bigaren au «ba» idatzi bear ei-doguz: baña nik diñot eta zuzen nagoala dirudit: itz bakaña ta ikuñ bardiñaz darabilgun itza ¿zer dala-ta idatzi bear dogu, batean batera ta bestean bestera? Kirol-zale egin ete-gara? (Beste aldi batzuetan be aditz-auretik «bai» erabilten dogu: orain esatera nuana bai dala polita (Lardizabal); ¡orixe bai dala gauza edeña! (Uruzuno): Jesusen Biotzaren Deya 1920 Uñila. Ementxe bai egin dogula, etc. (S. Altube). Orixe bai dala guzur galanta! Bai ote? Bai ote-daki? (Azkue) Oraintxe bai ikusten dot. ¿Zegaitik esan bear ete-dogu batzuetan onelan, eta urengoan bestera: ba da polita; ba da edeña, ba daki, oraintxe ba dakust, ikuñpen bardiña dauan itza era bitara idazten dogularik?

5.º «Bai» ren ordez «ba» idatzi aren zalantzarik iñoz be ez ei-dago idatzietan: osterá, «ba» ren ordez «bai» idatzi ezkerro, euskalkien arteko nastea ei-dator. Nire eretxiz, «bai» ren ordez «ba» idatzi ezkerro, zalantzadun idazkerak legokez eta ba'ren ordez bai idatzi

añen, euskalkien arteko nasterik ez letoñke: baña ba'letoñ be, naste ori kentzea sartu dauan euskalkiari dagokio ta ez besteai.

1.º Baldintza adierazten dauan «ba» ta bayetza dikuñana, eñiak ez ditu bardin oguzten: badakañ, «si lo trae» ta badakañ (bakañ) «sí lo trae», eñiak oguzkeran berezten ditu; baña idatzietan ¿zelan bereziko ete-doguz? Ikuñen bat-edo ipiñita? Bai, noski; baña ori baño «bai» idatzi obe da. «Bai» ren ordez «ba» idatzi ezkeru, zelan irakuñi be ezin jakin geinke, esakunaren amaira eldu arte beintzat:

Aita ba-datoñ eta zure eskubarea ba-dakañ, irurok joango gara basora.

Aita ba-datoñ eta zure eskubarea ba-dakañ.

Aita ba-doa ta zu non zagozan ba-daki, bera be orñxe geldituko da.

Aita ba-doa ta zu non zagozan ba-daki.

Norbaitek esan lei: bayetza danean ez idatzi orñelan, bestefara baño: Ba-datoñ aita ta ba-dakañ zure eskubarea (be): onelan idatzi ezkeru zalantza biderik ez dago. Bai, ori egia da; baña ori eñiari auñeak artzea be *bai* da.

Baldintzadun esakunai «ba» ren auñetik baldin ipiñi... ta kitu: ori egin ezkeru, zalantza biderik iñoz be ez legoke. Baña, gogoak emon dauskula-ta ori egitea ¿bañikeria ez ete-da ba?

Bizkayan euskaldun gitxi batzuk bai, baldin ori oparo erabilten dabe; baña beste enparau guñtiak, gitxitan baño ez. Baldintza adierazo nai dogun bakotxean, ba'ren auñetik «baldin» ori idatzi beañ bagendu, ñonak gengokez! Bizkai'ko euskaldunik geyenai zer diñoen eta zer darabilen ez dakiela esan beañ izango geunskioe.

Baldin ori *pleonástico* ez al-da? «No tiene traduc-

ción directa; su oficio es dar más fuerza a la condición» (Azkue); baña pleonasmok ez dira auzer eralbituko, noizik-noizera ta aldi egokia danean baño. «Gaur ba-dator «eta» baldin gaur ba-dator», nire ustez ez dira bardin: gaur ba-dator, si viene hoy: baldin gaur ba-dator, si acaso viene hoy, si es que viene hoy. «Gaur ba-dator, biar goizean Bilbora joango gara»: ori diñoanak etoriko dalakoen ustea darakus: «Baldin gaur ba-dator, biar goizean joango gara»: au diñoanak etoriko ez ete-dan bildura, etoriko dalakoen itxadona baño obeto adierazten dau. Eta «baldin» biritan esan ezkerok, bete ezin daiteken baldintza adierazteko, berebizikoa dirudi:

Eta baldin <i>da</i> baldin jayo balitz muti//		Arrese
Kirrikoak urratzen bearko eban i//		Zorigach bi

2.º Bayetza adierazteko, bai erabiltea naste-bidea ei-da, euskalki batzuk bai ori erderazko «pues» adierazteko darabile-ta. Erabili bai darabile; baña bait'en ordez eta, augaitik, aditzaren lenengo izkia, al dan guztietan, gogortu daroe: Baitakik bidea, Baititeke, Baitzinauden, Baitoa etc. Aditza n'gaz asten danean, olakorik ezin egin daitekela esango dau norbaitek. Egia da ori; baña ez'ek be orelako gertaldietan, aldakuntzarik sortu barik, galtzen dau bere «z»; eneban enetoren, enebilan etc. «Ez» osotu egin bear litzakela gero dakuskegu: bai ta bait oreakin beste orenbeste egin bedi... ta kitu.

Bai'ren ordez «ba» erabilten laburditarak nagusi dira: «Ni ba aspaldi zeta zu? — Bi oren huntan ba — Ni ere ba — Ba ni ere». Eriak an eta emen berenak egiten ditu: berak nai dauana egiten itxi ba-dayogu, urte batzuk baru aldakuntza ta laburkuntza bariak

eukiko doguz: bakar (ba-dakar) baki (ba-daki) luzee-
giak dirala-ta, «kar, ki» be oretarako naiko dirala
irakatsiko dausku. Laburditarak gaur bai'ren ordez
«ba» darabile, dirudianez; biar... ez dakit, baña orain-
go, agian, laburagoren baten bila-edo dabiltz. Guk
«bai» osorik; aek euren bait osorik eta aditzari iratsi
barik idaztea, ori litzake gauzarik zuzenena nire
ustez. Onelan, iñori ezer kendu barik, baktxari berea
emoten yako eta au zerbait baño geyago da, *zuzena*
baita (bait da).

''E Z''

1.º Geyenez aditz-aufetik dabilelako aditz-
aurizkia dalakoan, idazlerik geyenak aditzari iratsita
dautse; baña geyenez aditz-aufetik ibiltea, aditz-
aurizkia izateko ez da naikoa. Etoñi al-da edo etoñi
da-ala? Ez, ez jauna, erantzuten doguneko «ez» ori
eta «ezta-etoñi» diñoguneko «ez» au bat-bat dira.
Ekañi zendun? *Ez* edo eneban ekañi; lenengo «ez»
eta biga'ren «e» ez dira gauza bi, bat eta berbera
baño: «ez, ez jauna» diñogunean ez da aditz-aurizkia
«adverbio de negación» baño. Aditz-aufetik doanean,
antxe doalako beste barik, aditz-aurizkia egiten ete-
da? «Bai» ta «ez» izkuntza orotan, geyenez aditz-
aufetik doaz eta nai-ta-ez antxe joan bear dabe, ba-
yetza ta ezetza aditzari dagokiozan ezkerro; baña
euskeratik lekot, aditz-aurizkitzat iñok be ez daukaz.
Euskeran ¿zegaitik ete-dira ba aditz-aurizkiak? Eta
itz bat eta bakara izanik ¿zer dala-ta idatzi bear ete-
dogu batean «ez» bestean «e»?

2.º Baneban eta eneban alkarkideak dira; biak
izki bana galdu dabe: eztaki, eztatoñ, ezkara etc. ta
notiño, notaki, notakar be alkaren antzekoak: etzan,

etziran eta iltzan, egontzan, altzera, altzerate oneik be alkarǵandik urun ez dabiltz. Aldakuntza guzti oneik, aitaturiko itz oǵeik bata-bestearen jaǵai saǵi erabiliaren ondorenak dira: aldakuntza oǵeitán itz biren arteko aboskera edo izpiakerea dakusgu ta neuǵi bardiñaz neurtu bear direala dirudi: edo guztiak artu edo guztiak laga.

Arana-Goiri'k, bere idazkerea erabilanean, eztator, eztaki, ezkagizuz, ezkara etc. idatzi eban beti; baña nire aburu txikarǵez, berberak idatzitako arau oen aurka: «Para el uso general de la Fonética, juzgo deben establecerse como reglas de buen criterio las siguientes: 1.^a Una voz no debe influir fonéticamente sobre otra, aunque esté contigua». (Lecciones de Ortografía del Euskera bizkaino, pág. 163). Ez eta daki; ez eta gara; ez eta neban etc. itz bi dira, saǵi askotan banan, bakotxa bere aldetik dabiltzan itzak. Zer dala-ta idatzi bear dogu, ba, batean «daki» bestean ez-taki; batean gara, bestean ezkara, batean neban, bestean eneban? Daki ta taki, gara ta kara, dator eta tator etc. aditzaren era bardiñak ez al-dira? lkuǵi bat ez al-dauke? Baña eǵiak oǵelantxe oguzten ditu-ta. ? Eǵiak, notaki, notakarǵ, onetaki, onetakarǵ etcétera be esaten ditu; baña itz bi nastau dituala-ta, eǵiaren esakera oneik iñok be ez ditu aintzat artzen. Eta beste oǵeik bai ¿cur tam varie?

Antziñako idazle batzuk, ezdator, ezdaki, ez neban etcétera idatzi eban; geyenak eztaki, eztator, ezkara, eneban etc.; baña onelan idatzi ebenok, iltzan, egontzan, altzera ta beste onein antzeko asko be idatzi eroezan eta onetan jaǵaigari ez dirala orok diñogu. Antziñako euskal-idazle oǵeik euskera irakasteko asmoz bein be ezeben idatzi, erderarik ez ekienai euskeraz beste zerbait irakasteko asmoz baño. Gaur

egunean, edozein gai darabilgunean be, bide batez, euskera irakasteko asmoz idatzi bear dogula dirudi, au be noz-edo-noz egin bear da-ta; baña euskaldun irakurleak nozbait euskera euskalizti edo gramatika arauz ikasi dagien nai ba-dogu, umekeriak alde batera itxi-ta, aditza, aurfetik beintzat, beti garbi, naste barik, soil-soil idatzi bear dogu. *Aufizkiak* aditzetik berezi arén, atzizkiak bakañik be askotxu dira-ta, euskal-aditza umeai ondo irakatsi nai dautsenak zeregiñik asko izango dau. Gauza oneik érezago egin bearean, gañxago egiteko asmoetan gabiltzala dirudi.

«Ez» aditzai iratsi eta itz bakaña bai'liran idazteak, gaiztasuna, iluna, ta nastea baño besterik ez dakañ.

Aditza ikasi-ta gero be, irakurten diarduan ume-txuak onelako itzak; ezta, eztator, ezkara, ezkenduan, eztaramate, etzan, etziran, etzitzaion etc. aurkitu badagiz eta zer diran ifandu ba-dayogu, zuzen erantzungo dauskunik ez uste izan: azaldu bear izango dautsaguz eta azaldu ta gero be zeintzuk aditz eta aditz-erak direan érez igarñen ba-dau, gaitz erdi. Bada-torkii, ezpadator, bagiñazen (bagiñoazen) balego, balira, eziñeike (ezin neike) badezakezu, bazezakean, *badaukazuta*, badata, badirata, badauzkaguta, ezpazait, eztaba, eztagofa, eztauketa, etzegoan, etzuten: oidira, oiziran, oizuan, oida, oitzituzten, omendira; alda, aldezakegu, alabi//, aldit, albadet, albanu, ezaldeitzazu, ezaltzerate, ezotezuan, ezotediote, ezaldaukagu, ta beste orrelako asko ta asko, umeak azterketa edo analisis ondo egin al-izateko, naste-boñaste lañegi dira. Etoñi aldira? ta aldira (denporara) etoñi: joan altzera? eta altzera joan da txoria; ernetzen bada ta egizu bada ta onein antzeko beste batzuk naste txaragoa dakañe. (Garoa).

Eta I-ta-no-aditzaz ilun eta naste geyago: yoak.

etxoak; yiñok, etxiñok: bayakiñat, etxakiñat (etxakia-nat); yagiñadan, etxagiñadan; yakusen, etxakusen; yabilk, etxabilk; yaukak, etxaukak t. a. Oneik eta beste onein ideko enparau guztiak be ontzat artuko ete doguz? Baña etxiñok, etxakit, etxakat, etxarabilk t. a. eñiak esaten dituala-ta, oñelan idatzi ba-daiguz, notxiñok, notxakit, notxakat, notxarabilk t. a. eñiak oñelan-txe oguzten dituan ezkerro, alkartuta, itz bakara bai liran, idatzi beař geunkez. Eta au egin nai ez ba-da, beste oñeik be ez bediz egin.

Arana-Goiri'k asikeran aitatu dogun «ba» oñetzaz, auxe esan eban: bayetza dikuñanean, «bai» idatzi bedi, aditzari erantsi barik; baldintza dikuñanean aldia berenez eta nai-ta-ez baldintzadun ba-da, «ba» ori berezkatz edo apostrofo batekin-edo, aditzetik albait gitxien berezi bedi: aldia berenez baldintzadun ez dalarik, geuk baldintzadun egiten dogunetan, *guion* txiki bategaz pizka bat geyago bereztea, egokiena litzake.

Nik ondo deritxot; baña ikuř oñein ordez beste ego-kiagoen batzuk, norbaitek ba lekařz, aek itxi ta oneik artzeko gertu nago. Zelan edo alan, *aurizkiak* diralako oneik guztiok (bai, ba, 'ba-,ez, bait, baldin, balin, bide, beař, omen, ote, othe, ete, al, aal, oi, othoi ušte, gogo, ari) aditzetik berezi ta aditza aldakuntza barik, bayetza ta ezetza dikuñanean bietan bardin idatzi beař litzakela deritxat. Umeai euskal-aditza irakasten diarduan irakasleari atzizkiak bakarařik be zeregin eta lořik asko emongo dautse-ta.

Eguskitza.